

**OINARRI-ARAU OROKORRAK,
ERANDIO ELIZATEKO UDALEAN
FUNTZIONARIOEN PLANTILLAKO LANPOSTU HUTSAK
KARRERAKO FUNTZIONARIOZ BETETZEKO
HAUTAKETA-PROBEN DEIALDIETARAKOAK.**

LEHENA.- DEIALDIAREN HELBURUA.-

- 1.- Oinarri hauen helburua da hautaketa-proben deialdia egitea, deialdiko oinarri espezifikoetan zehaztutako Administrazio Orokorreko eta Bereziko lanpostuak karrerako funtzionarioz betetzeko, bidezko diren erreserbak eginda.
- 2.- Barne promozioko eta elbarrientzako erreserbetatik datozen eta dagozkien probak gainditzen dituzten izangaiek lehentasuna izango dute kasu guztietan, dagozkien erreserben bidez deialdi honi lotutako lanpostu hutsak betetzeko.
- 3.- Barne promoziorako edo elbarrien txandarako erreserbatuak dauden lanpostu hutsak bete gabe geratuko balira, konkurrentzia ezagatik, izangaiek dagozkien probak gainditzeko eskatu zaien gutxieneko puntuak lortu ez dituztelako edo bigarren oinarriko eskakizunak betetzen ez dituztelako, gainerako izangaiei eskaintzen zaizkien lanpostuei gehituko zaizkie.
- 4.- Edozein kasutan ere, hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa duten lanpostuak betetzeko, ezinbestez egiaztatu behar da hizkuntza-eskakizuna oinarri hauetan zehaztutako moduan.
- 5.- Epaimahaiak ezin izango du deialdiko plaza-kopurua baino hautagai gehiago hautatu; horrenbestez, muga hori gainditzen duten proposamenak erabat baliogabeak izango dira.

Hala ere, plaza guztiak betetzea ziurtatzeko helburuarekin, plaza betetzeko proposatuak izan diren hautagaien ondorengo zerrenda osagarria eska diezaioke deialdia egin duen organoak hautaketa-organoari, karrerako funtzionario izendatu ahal izan daitezen honako kasu honetan: hautatutakoek plaza betetzeari uko egiten diotenean izendapena egin edo plaza jabetzan hartu aurretik.

- 6.- Era berean, sexuen arteko aukera berdintasunen printzipioarekiko konpromisoa aldarrikatzen da, Erandioko Udalaren zerbitzuko langileak hartzeko prozeduraren oinarritzko irizpidetzat.

BIGARRENA.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- 1.- Hautaketa-probetan onartua izateko eta parte hartzeko, izangaiek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:
- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetako bateko nazionalitatea edukitzea, edo, Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak sinatu dituen nazioarteko itunen arabera, langileek batetik bestera askatasunez mugitzeko eskubidea duten estaturen batekoa, hori guztia 17/1993 Legean ezarritakoaren arabera. Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna duten pertsonen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, zuzenbidez bananduta ez badaude, baita haien seme-alabek ere, kasu horretan ere ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude eta seme-alabek hogeita bat (21) urte baino gutxiago badituzte edo gehiago baina gurasoen kontura bizi badira.
 - b) Hamasei urte beteta izatea eta derrigorrezko erretirorako adina ez izatea.
 - c) Zereginak betetzea eragotziko duen gaixotasunik edo urritasun fisiko edo psikikorik ez izatea, urritasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legeari kalterik egin gabe. Hautaketa-prozesua gainditu ondoren, gaitasun fisikoa eta psikikoa medikuaren ziurtagiri eta/edo azterketa baten bidez egiaztatuko da. Baldintza hori betetzea ezinbestekoa izango da lanpostuaz jabetu ahal izateko.
 - d) Deialdiko berriazko oinarrietan eskatutako titulazioa egiaztatzen duen titulu ofiziala edo homologatua izatea, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko tituluaren kasuan, homologatuta daudela egiaztatzeke agiria eduki beharko da.
 - e) Kargu publikoak betetzeko gaitasunik gabe ez egotea, eta diziplinazko espedienteagatik edozein herri administrazioako zerbitzutik kanpo geratu ez izana. Atzerritarrek ez dute izan behar

beren estatutuan kargu publikoetan jardutea galarazten dien diziplinazko zehapenik edo zigor penalik.

- f) Indarrean dagoen araubidearen arabera, legezko ezintasun- edo bateraezintasun-kasuren batean sartuta ez egotea.
- g) Hautaketa-prozesu bakoitzerako berariaz ezarriko diren bestelako betekizunak, bidezko eranskinetan xedatutakoaren arabera.

- 2.- Karrerako funtzionarioak barne promozioz irits daitezke euren hurrengo, edo talde bereko kidego eta eskaletara.

Barne promozioiko probetan aurkezteko, funtzionarioak zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietako egoeran egon beharko du bere kidego edo eskalan, bertan karrerako funtzionario bezala zerbitzuan bi urte beterik izatea eta sartu nahi den kidego edo eskalara iristeko ezarritako titulazioaren eta gainerako betekizunen jabe izatea.

Barne promozioa bete ahal izateko, kidego edo eskala horretan izaera orokorraz sartzeko deialdian ezarritako probak gainditu beharko dira.

Hala ere, barne promozioiko txandan lehiatzen diren izangaiak salbuetsita daude, euren kidego edo eskalan sartu ahal izateko eskatu zitzaizkien ezagutzak egiaztatzeko helburua luketen probak egiteko.

Barne promoziorako erreserbatuak dauden eta bete gabe geratzen diren lanpostu hutsak txanda irekian eskainitakoei erantsiko zaizkie.

Barne promozio sistemaz beste kidego edo eskala batera sartzen diren funtzionarioak beronetako lanpostu hutsei atxikiko zaizkie behin-behinekotasunez, lehiaketa edo izendapen aske bidez behin betiko destinoa lortzen duten bitartean. Hala eta guztiz ere, parte har dezaketen lehenengo lehiaketan lehentasuna izango dute txanda irekitik datozen izangaien aurrean, bertan eskaintzen diren lanpostu hutsak hornitu ahal izateko.

- 3.- Elbarrientzako erreserbatuak dauden lanpostuetara aurkeztu ahal izateko, interesatuak elbarrien legezko izaera aitortua izan beharko du: %33ko edo hortik gorako elbarritasuna, Administrazioaren organo eskudunak (Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak, IMSERSOk edo baliokideak) aitortua.

- 4.- Oinarri honetan zehaztutako baldintza hauek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eta egoera horretan jarraitu behar da hautaketa-prozesu osoan, izendapena egin arte.

HIRUGARRENA.- ESKABIDEAK.

1. Bidezko hautaketa-prozesuetan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztu beharko dira; eredu hori Erandioko Udaleko Erregistro Nagusian doan eskuratu daiteke, baita Udaleko web gune ofizialean ere: www.erandio.net

Onartuak izateko eta, hala dagokionean, hautaketa-probetan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskabidearen atal guztiak bete beharko dituzte. Eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, eta eskabideak aurkezteko adierazitako epea amaitu orduko bete beharko dituzte.

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeak suposatzen du izangaiek onartzen dutela eskabidean jasotako datu pertsonalen tratamendua, alegia, hautaketa-prozesuko emaitza partzialak eta behin betikoak buletinetan, iragarki-oholetan, web orrian eta bestelako bidetan argitaratzea.

Hautaketa-prozesuak publizitate printzipioaz araututa daude. Ondorioz, izangaiaren eskabiderik ez da onartuko baldin eta ez badu bere datuak lagatzea onesten. Datuen aurka egiteko, eta datuetara iristeko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea baliatzeko, deialdia egin duen organora jo dezakete interesdunek.

Eskabidean, izangaiek hurrengo datuak zehaztu behar dituzte:

- a) Eskatutako datu pertsonalak, prozesua behar bezala kudeatzeko.
- b) Parte hartzeko aukeratutako txanda:
 - a) librea,
 - b) barne promozioa, edo
 - c) elbarriak

Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

- c) Eskuratu nahi den lanpostua.

- d) Ariketak egiteko aukeratutako hizkuntza ofiziala, euskara ala gaztelania.
- e) Urritasunen bat duten pertsonak beren ezaugarriaren berri eman beharko dute eskabidean eta, bidezkoa bada, hautaketa-probak egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten egokitzapen teknikoak ere zehaztu behar dituzte.

Eskabidearekin batera, hurrengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo EBko herrialde kideetako edo, EBk hitzartu eta Espainiak sinatuta dituen nazioarteko itunen arabera, langileek batetik bestera askatasunez mugitzeko eskubidea duten estaturen bateko agiri baliokidearen fotokopia.
- b) Lanpostuak eskuratzeko eskatutako titulu akademiko ofizialaren fotokopia edo eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.
- c) Alegatutako merezimenduak bana-banan aipatzen dituen adierazpena, merezimenduok egiaztatze beharrezko dokumentuen fotokopiekin batera. Ezin izango da eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta justifikatutakoez bestelako merezimendurik baloratu, ezta epearen barruan alegatu arren, gerora justifikatu denik ere.
- d) Elbarrientzat erreserbatuak dauden plazetara aurkezten diren izangaiek izaera hori Administrazioan eskumena duen organoak hala adierazita egiaztatu beharko dute.
- f) Deialdiko oinarri espezifikoetan ezarritako beste edozein.

Merezimenduak justifikatzeko, zuzenbidean onartutako edozein bide erabili ahal izango da, eta zehatzago:

- a) Titulu akademiko ofizialetarako, tituluaren fotokopia edo eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.
- b) Zerbitzuak eman izanagatik lortutako merezimenduak Herri Administrazioen ziurtagirien bidez egiaztatu behar dira eta, bidezkoa bada, karrerako funtzionario, bitarteko funtzionario edo lan-kontratudun langile gisa emandako zerbitzuon lan-kontratuen bidez; gainera, beste zenbait puntu ere adierazi behar dira, hala nola, lanpostuaren edo plazaren izendapena, taldea, lanpostua betetzeko eskatutako titulazio-betekizunak eta zerbitzuaren iraunaldia.

- c) Erandioko Udalean emandako zerbitzuak ere alegatu ahal izango dituzte interesdunek, baina ez da horiek egiaztatu beharrik egongo. Zerbitzuok ofizioz hartu ahal izango ditu kontuan administrazio honek.
- d) Deialdiko oinarri espezifikoean hala adierazten bada, enpresa pribatuetakoa esperientzia egiaztatzeko, emandako zerbitzuen adierazgarri gisa enpresek egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da; lanpostua zein izan den adierazi beharko da eta, ahal bada, gauzatutako zereginak eta horietan emandako denbora eta denbora-portzentajea ere adierazi beharko dira; horrez gain, Gizarte Segurantzaren ziurtagiria edo, horrelakorik ezean, zerga-ziurtagiria aurkeztu beharko da. Lan-kontratuaren fotokopia ere aurkeztu beharko da, Gizarte Segurantzaren kotizatu izanaren ziurtagiarekin batera.
- e) Era berean, deialdiko Oinarri Espezifikoean hala zehazten bada, langile autonomoek erregimen autonomoan kotizatutakoaren ziurtagiria eta jarduera ekonomikoaren gaineko zergan altan emandako denbora-tartearen ziurtagiria aurkeztu beharko dituzte, burututako lan profesionaleri buruzko dokumentuez gainera.
- f) Prestakuntza ikastaroei dagokienez, erakunde prestatzaileak emandako titulu edo ziurtagiriaren fotokopia aurkeztu behar da; agiri horretan, ikastaroa antolatu duen erakundearen izena, ikastaroaren izena, prestakuntza-programa, ahal bada, eta ikastaroaren iraupena adierazita egon behar dira. Iraupena ordutan zehazten ez bada, epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratzea ala ez baloratzea.

Aurreko guztiaz gain, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoean eska daitezkeen beste edozein agiri aurkezteko ere eskatu ahalko da.

- 2.- Eskabideak aurkezteko epea hogeitun egun naturalekoa izango da, deialdiaren aipamena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita.

Eskabideak, alkateari zuzenduta, Erandioko Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, edo, bestela, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako tokietan. Eskabideak posta-zerbitzuaren bidez bidaliz gero, gutunazala irekita egon beharko da, ziurtatu aurretik, aipatutako zerbitzuak zigilua eta data jar diezaien.

- 3.- Euskararen ezagutza egiaztatzeko jatorrizko ziurtagiria Erandioko Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dute interesdunek bidezko ariketa egin baino lehen, datuak alderatu eta berehala hautaketa-prozesuko espedientean sartzeko.

LAUGARRENA.- IZANGAIAK ONARTZEA.-

- 1.- Hautaketa-prozesu bakoitzeko eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onesteko ebazpena emango du alkateak; izangai baztertuen kasuan, kanpoan utzi izanaren arrazoiak zehaztuko dira. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan argitaratuko da, eta bertan, onartutako eta baztertutako izangaien zerrendak ikusgai non dauden, ariketak non eta noiz izango diren eta hautaketaz arduratuko den epaimahaia nortzuek osatuko duten adieraziko da.
2. Eskabideren batean okerrik badago, interesdunari 10 laneguneko epea emango zaio, kanporatzearen kontrako erreklamazioa egiteko, okerra konpontzeko edo eskabidearekin batera eskatutako derrigorrezko dokumentuak aurkezteko; horrelakorik egin ezean, uko egin duela ulertuko da eta, beste izapiderik gabe, bere eskabidea amaitutzat joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.
3. Behin-behineko zerrenden inguruan aurkez daitezkeen bidezko alegazioak aztertu ondoren, alkateak beste ebazpen bat emango du onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onesteko; zerrenda hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan argitaratuko da. Alegaziorik egiten ez bada, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da automatikoki.
4. Onartuen eta baztertuen zerrendak onesten dituen ebazpenaren kontra berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da Erandioko Udaleko alkateari zuzenduta; horretarako hilabeteko epea egongo da, behin betiko zerrendak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita.
5. Probak egitera, alkate dekretuaren bidez prozesuan onartuta geratu diren izangaiak aurkeztu ahal izango dira, baita baztertu gisa agertu arren, deitutako egintzan ebazteke dagoen/dauden kontra egiteko bidezko bitartekoa(k) abiarazi d(it)u(z)tela egiaztatzen dutenak ere. Pertsona horien

erreklamazioa gaitzesten bada, izangai horiek behin betiko geratuko dira prozesutik kanpo.

BOSGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

- 1.- Hautaketako organoa kide anitzekoa izango da eta inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipiopean osatuta egongo da eta, era berean, emakume eta gizonen arteko parekotasunerako joera izan beharko du.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Epaimahaia osatuko duten pertsona titular eta ordezkioak izendatuko ditu alkateak eta horien zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, hautaketa-prozesuan onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrendekin batera.

Hautaketa organoa kide anitzekoa izango da eta bost kidez osatuko da.

Epaimahaia ezin izango da osatu ez jardunean hasi gutxienez hiru (3) kide, titularrak nahiz ordezkioak, bertaratu ez badira. Kopuru horretan ez da kontuan hartzen idazkari lanean diharduena. Erabakiak bertaraturako epaimahaikide gehiengoan aldeko botoaren bidez hartuko dira, eta berdinketa badago, epaimahaiburuaren kalitatezko botoak erabakiko du. Epaimahaiko kide guztiek izango dute ahotsa eta botoa, idazkariak izan ezik; horrek ahotsa izan arren, botorik ez du izango.

Epaimahaia osatzen duten pertsonak uko egin beharko diote epaimahaikide izateari Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan zehaztutako inguruabarretakoren bat gertatzen bada, eta halaxe jakinarazi beharko diote alkateari. Gainera, aipaturako artikuluan zehaztutako kausaren bat gertatzen bada, izangaiek epaimahaikide horien ezespina eragin dezakete, aipaturako Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, guztiz galarazita egongo da bidezko deialdia argitaratu aurreko bost urtetan izangaiak hautaketa-probetarako prestatu dituztenak epaimahaikide, laguntzaile edo aholkulari izendatzea eta hala jardutea: kasu horretan, uko egin beharreko kasuetan bezala jardun beharko da.

- 2.- Epaimahaiak, egoki baderitzo, hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako aholkulariez baliatzea erabaki dezake. Aholkulariok beren espezialitate teknikoan esparruetara mugatuko dira, Euskal Funtzio

Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, ondorioz, beren espezialitateetan aholkularitza eta laguntza tekniko eskainiko dituzte, ahotsarekin baina botorik gabe.

- 3.- Epaimahaiak autonomia funtzional osoa izango du, eta oinarri orokorrak edo espezifikoak aplikatu eta interpretatzeari dagokionez sor daitezkeen zalantza eta galdera guztiak konpontzeko eskumena ere izango du, baita oinarrietan edo aplikatu daitekeen araudian aurreikusi ez den guztian hautaketa-prozesua garatzeko beharrezko erabaki oro hartzeko eskumena ere.
- 4.- Epaimahaiak, hautaketa-prozesuaren barruan, beren espedientea ikusteko eskubidea bermatuko die izangaiei.
- 5.- Epaimahaiaren ebazpenen kontra, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da Erandioko Udaleko alkatearen aurrean; horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpena iragarki-taulan argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita.

SEIGARRENA.- HAUTAKETA PROZEDURA

- 1.- Kasuan kasuko deialdiko oinarri espezifikoetan ezarritako sistemaren bidez hautatuko dira izangaiek, dagozkien txandetan: Librea, elbarriak eta barne promozioa, oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera
- 2.- Oposizio-lehiaketa sistemaren bidez egingo diren hautaketa-probetan, lehiaketa fasea ez da baztertzaila izango, eta ez da oposizio faseko probak gainditzeko kontuan hartu ahal. Hori horrela da toki administrazioetako funtzionarioak hautatzeko prozedura arautzen duen ekainaren 7ko 896/1991 Errege-Dekretuaren 4.c) artikuluan adierazitakoaren arabera.

Oposizio fasean deialdiko oinarri espezifikoetan zehazten diren ariketak egin beharko dira. Edonola ere, azterketa teorikoa eta azterketa praktikoa egongo dira.

Azterketa teorikoan, erantzun anitzeko galdera-sorta bati idatziz erantzun beharko zaio eta/edo epaimahaiak proposatu eta ariketa hasi baino lehen ausaz ateratako gai bat edo gehiago zati batean edo guztiz garatu beharko dira; gai horiek bidezko taldeari eta lanpostuari dagozkion oinarri espezifikoen arabera ezarritako gai-zerrendakoak izango dira.

Azterketa praktikoan, bete beharreko lanpostuetako eginkizunen inguruan izangaiek nolako ezagutza praktikoak dituzten zehazteko proba bat edo gehiago egingo dira; proba horrek hainbat ariketa izan ditzake, eta ariketak baztertzailak ere izan daitezke.

Deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan, ariketa derrigorrezko eta baztertzailak gisa, bete beharreko lanpostuari dagokionez duten gaitasuna eta nortasuna baloratzeko zenbait proba egiteko eska dakieke izangaiei.

Lehiaketa fasean, prozesu bakoitzerako oinarri espezifikoetan zehaztutako espezialitateei kalterik egin gabe, hurrengo arauak hartuko dira kontuan:

- 2.1.- Eskabideak aurkezteko epearen barruan, izangaiek alegatutako merezimenduak banan-banan aipatzen dituen adierazpena aurkeztuko dute, merezimenduok behar bezala egiaztatzekeo agiriaren fotokopiarekin batera.
 - 2.2.- Ezin izango dira baloratu eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan behar bezala alegatu eta justifikatu ez diren merezimenduak, ezta bidezko oinarri espezifikoaren arabera merezimenduok baloratzeko beharrezkoak diren datuak barne hartzen ez dituzten agiriak ere.
 - 2.3.- Funtzionario izateko hautaketa-prozesuetan derrigorrez egin beharreko ariketa gisa aurreikusitako prestakuntza-ikastaroak ez dira, inola ere, baloratuko, ezta aurretik baloratutako beste batzuen eduki bera duten ikastaroak ere.
 - 2.4.- Merezimenduak baloratzeko, eskabideak aurkezteko epearen azken eguna hartuko da erreferentzia-muga gisa.
 - 2.5.- Lehiaketa faseko emaitzak oposizio faseko lehenengo ariketa egin eta gero argitaratuko dira Erandioko Udaleko iragarki taulan; lehenengo ariketa gainditu duten izangaien emaitzak baino ez dira baloratuko.
- 3.- Hizkuntza eskakizunak egiaztatzerakoan, ondorengo araudietan ezarritakoa aintzat hartuta egingo dira baliozkotzea eta baliokidetasuna: apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan (1997ko apirilaren 17ko EHAA), urriaren 6ko 263/98 Dekretuan (1998ko urriaren 23ko EHAA), apirilaren 8ko 64/08 Dekretuan edo balorazioa egiterakoan indarrean dagoen araudia.
 - 4.- Oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozesuetan prestakuntza-ikastaroak egiteko eta denboraldi bat praktikan emateko eskatu ahalko da, prozeduraren beste fase bat bailitzan.

Oro har, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 28. artikulua ezartzen duenez, ikastaroak eta praktikak egin dituzten izangaiak (ezin izango dira deialdiko plaza kopura baino gehiago izan) praktiketako funtzionario izendatuko dira. Prestakuntza ikastaroa eta praktika-denboraldia ezin izango dira hemezortzi hilabete baino gehiagoz luzatu; fase hori gainditu ezean, deialdian ezarritako kalifikazio-prozedurari jarraiki, izangaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira automatikoki eta funtzionario izendatzeko izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

ZAZPIGARRENA.- HAUTAKETA-PROZESUAREN HASIERA ETA GARAPENA.

- 1.- Oposizio faseko lehenengo azterketa egiteko tokia, eguna eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Erandioko udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko dira, hautaketa-prozesuan onartuak eta baztertuak izan direnen behin betiko zerrenda onesteko ebazpenarekin batera. Proba bat amaitu eta hurrengo hasi bitartean, gutxienez, hirurogeita hamabi (72) ordu igaro behar dira; epe hori ezin izango da inola ere, berrogeita bost (45) egun baino gehiago luzatu. Izangaiek idatzi eta gero jendaurrean irakurri beharreko ariketen kasuan, aurreko paragrafoan adierazitako epeak idatzizko ariketa amaitzean hasiko dira zenbatzen, eta ez da jendaurreko irakurketa amaitu arte itxaron beharrik egongo.
- 2.- Hautaketa-prozesu bakoitzeko bigarren probari eta hurrengoei buruzko iragarkiak hautaketa-epaimahaiak argitaratuko ditu Udalaren iragarki taulan, gutxienez proba hasi baino hamabi ordu lehenago, proba bera bada, edo hogeita lau ordu arinago, beste proba bat bada.
- 3.- Izangaien ordena Herri Administrazioarako Estatu-Idazkaritzak egindako zozketaren araberakoa izango da, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Zozketan ateratako letraz hasten den lehen abizendun izangairik ez badago, ordena hurrengo letrek markatuko dute, bidezkoa den moduan.
- 4.- Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da, eta bertaratzen ez direnak kanpoan geratuko dira, behar bezala justifikatu eta Epaimahaiak salbuespen gisa baloratutako kasuak ez badira, behintzat.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala eraman beharko dute bidezko probetako ariketa guztietara edo, bestela, Epaimahaiaren ustez identitatea

nahikoa egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizial. Edozein unetan, Epaimahaiak identitatea egiaztatzeko eskatu ahalko die izangaiei.

- 5.- Epaimahaiak beharrezko denbora eta bitartekoak egokituko dituzte urritasunen bat duten izangaiek ariketak egin ahal izateko eta gainerako izangaiek beste aukera izango dituztela bermatzeko, probaren edukia hutsaldu gabe eta bertan eska daitekeen gaitasun-maila jaitsi gabe, betiere.
- 6.- Gainditutako ariketen kalifikazioak eta merezimenduen balorazioak Epaimahaiak emango ditu argitara Udaleko iragarki-taulan.
- 7.- Izangaia onartuen zerrendan egoteak ez du esan nahi, prozesua bideratzerakoan, epaimahaiak haiek kanpoan uzteko eskubiderik ez duenik; izan ere, proba guztiak eginda izan ala ez, epaimahaiak horrela jokatu ahal izango du aurkeztutako datuak edo dokumentuak egiaztatzerakoan, lehiakideak hautaketa-prozesuan onartua izateko eta parte hartzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen ez dituela ikusten badu. Kasu horretan, epaimahaiak interesduna kanporatu egingo du, hark esan beharrekoa entzun eta kanporatzeko arrazoiak idatziz jakinarazi ondoren.

ZORTZIGARRENA.- ARIKETAK ZUZENTZEA ETA GAINDITU DUTENEN ZERRENDA.

- 1.- Oposizio faseko ariketa bakoitzaren kalifikazioa lortzeko, epaimahaiko kideek emandako puntu guztiak batuko dira; horrela bada, batezbestekoa izango da bakoitzaren behin betiko kalifikazioa, deialdi bakoitza arautzen duten oinarri espezifikotan oposizio faseko ariketak kalifikatzeko sistema berariaz adierazten ez bada, behintzat.
- 2.- Hautaketa-prozesuaren fase desberdinetan lortutako puntuak batuta ateratzen den emaitzak erabakiko du izangaien sailkapen-ordena. Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 27.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioko dena delako kidego edo eskalan emakumeak %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean. Berdinketarik gertatuz gero, honako irizpide hauek erabiliz erabakiko da izangaien sailkapen-ordena: oposizio fasean puntuaziorik onena lortu duen izangaiaren alde erabakiko da lehenengo; bigarrenaz, Erandioko Udalaren zerbitzura denbora gehien eman duenaren alde egingo

da; hirugarrenez, euskal administrazio publikoen zerbitzura denbora gehien eman duenaren alde; laugarrenez, beste administrazio publiko batzuetan denbora gehien lan egin duenaren alde; eta, azkenik, urte gehien dituenaren alde.

- 3.- Hautaketa-prozesu bakoitza amaitutakoan, epaimahaiak ariketak gainditu dituzten izangaien behin betiko kalifikazioak argitaratuko ditu udaletxeko iragarki-taulan, eta Udalaren web gune ofizialean ere: www.erandio.net. Lortutako puntuak arabera ordenatuta egongo dira kalifikazioak eta hautatutako pertsonak nortzuk diren ere berariaz adierazi beharko da.

Era berean, azken bilerako akta bidaliko dio epaimahaiak alkateari; akta horretan, probak gainditu arren, bete beharreko plaza-kopurutik kanpo geratzen diren oposiziogile guztien zerrenda agertu beharko da, puntuazioaren arabera ordenatuta, Praktiketako funtzionario izendatzeko proposatutako izangairen bat edo gehiago karrerako funtzionario postuaz jabetuko ez balira ere.

Epaimahaiak ezin izango du deialdiko plaza kopurua baino izangai gehiago hautatu; horrenbestez, muga hori gainditzen duten proposamenak zuzenbidez baliogabeak izango dira.

Bidezko hautaketa-prozesuetako fase bat edo guztiak gainditu arren, plazarik eskuratu ez duten izangaiak Erandioko Udalean aldi baterako zerbitzuak emateko osatuko diren lan-poltsetan sartuko dira.

BEDERATZIGARRENA.- DOKUMENTUAK AURKEZTEA.

- 1.- Hautatutako pertsonen jarraian adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte Udalaren Erregistroaren bitartez; horretarako, hogei laneguneko epea izango dute, udaletxeko iragarki-taulan onartuen behin betiko zerrendak argitaratu eta biharamunean kontaktzen hasita:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia konpultsatua.
- b) Diziplinako espediente baten bitartez, inolako administrazio publikoren zerbitzutik bereizi ez dutelako aitorpena; bai eta administrazio publikoen zerbitzupeko langileen ezgaitasun eta bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean, eta Estatuaren Administrazio, Gizarte Segurantzza eta beraien menpeko izakunde, erakunde eta enpresen zerbitzupeko langileen bateraezintasunei buruzko apirilaren 30eko 598/1985 Errege



Dekretuan ezarritako ezgaitasun eta bateraezintasuneko karietarik inolakoetan ez dagoelakoa ere.

- c) Mediku-ziurtagiria, egitekoa normaltasunez betetzea galaraziko dien gaixotasun edo urritasun fisiko edo psikikorik ez dutela frogatzeko. Elbarriak diren lehiatzaileek, gainera, beteko dituzten lanpostuetan aritzeko gaitasuna dutela ziurtatzeko agiria aurkeztu beharko dute, eta ziurtagiri hori administrazioko organo eskudunak egindakoa izan beharko da.
 - d) Hautaketa-prozesu bakoitzerako berariaz zehaztutako tituluak edo betekizunak justifikatzeko agiriak, behar bezala legeztatuta.
- 2.- Goian adierazitako dokumentuak aurkezteko behar bezala justifikatutako ezintasuna dutenek zuzenbidean onartutako beste edozein frogabide erabili ahal izango dute deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.
- 3.- Funtzionario publikoek ez dituzte dokumentuen bitartez berriz justifikatu beharko funtzionario postua lortzeko jada egiaztatutako baldintzak eta betekizunak; kasu horretan, bidezko erakunde publikoaren langileen erregistroak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute beren egoera eta zerbitzu-orrietan azaltzen diren inguruabarrak egiaztatzeko.
- 4.- Ezarritako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan salbu, dokumentuak aurkezten ez dituztenek edo, dokumentuok aztertu ondoren, oinarri hauetan adierazitako baldintzaren bat betetzen ez dutenak, ezin izango dira funtzionario izendatu eta ordura arte egindakoa baliogabetu egingo zaie, hasierako eskabidean gezurra esatearren izan ditzaketen erantzukizunak alde batera utzi gabe. Kasu horretan, epaimahaiak izendapen proposamen osagarria egingo du, oposizioko ariketak gainditu ondoren, deialdiko plaza kopuruan, baliogabetze horren ondorioz, tokirik izango luketenen alde.

HAMARGARRENA.- IZENDAPENA, PRAKTIKAK ETA KARGUA HARTZEA

1.- Izendapena:

Aipatutako dokumentuak aurkezteko epea amaitutakoan, alkateak praktiketako funtzionario izendatuko ditu izangaiak; izan ere, praktiketan

egongo dira izendapenean adierazitako egunetik lanpostua jabetzan hartu arte edo, bestela, prestakuntza ikastaroan edo praktiketara kanporatu arte.

Izendapenak interesatuei jakinaraziko zaizkie eta Erandioko udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

2.- **Praktiketako funtzionarioak:**

Karrerako funtzionario postua lortzeko hautaketa-probetako deialdietan, prestakuntza-ikastaroak egiteko edo praktiketara denboraldi bat emateko eskatu ahal izango da, hautaketa-prozesuko beste fase bat balitz bezala.

Prestakuntza ikastaroa eta praktika-denboraldia hamazortzi hilabetez luzatu ahal izango dira; praktikak ez egiteak, edo uko egiteak, hala nola deialdian aurreikusitako kalifikazio-prozeduraren arabera berori ez gainditzeak izangaia automatikoki utziko du hautaketa-prozesutik kanpo eta funtzionario izendatzeko izan dezakeen eskubide oro galduko du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horrelakoetan, bederatzigarren oinarriko laugarren atalean aipatu izendapen proposamen osagarriari helduko zaio, eta deialdiko plaza kopuruan, baliogabetze horren ondorioz, tokirik izango luketenen aldeko izendapen proposamenak egingo dira, bakoitzak lortutako puntuazio hurrenkeraren arabera.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 98.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, deialdiko plaza bat betetzeko derrigorrezko baldintza hizkuntza eskakizun zehatza izatea bada, baldintza hori nahitaez bete beharko da lanpostua eskuratzeko. Hizkuntza eskakizuna deialdiko oinarri espezifikoetan zehaztutakoaren arabera betetzeko eskatu ahalko da, eta hautaketa-probetan edo funtzionario izan aurretik egin beharreko prestakuntza-ikastaroan eta praktika-denboraldian egiaztatu beharko da.

3.- **Praktika-denboraldia**

Deialdiko oinarri espezifikoetan zehaztutako iraupena izango du. Praktika-denboraldia amaitu aurretik, praktiketako funtzionario bakoitzari buruzko txostena egingo du dagokion nagusiak, irizpide hauek kontuan hartuta:

a) erakutsitako trebetasunak:

- Lanerako gaitasuna eta lan-errendimendua.
- Erantzukizun-maila eta eraginkortasuna.
- Ikasteko interesa, borondatea eta inizatiba.

b) erakutsitako gaitasuna:

- Lan-taldean izandako integrazioa.
- Barne eta kanpoko harremanetan izandako egokitasuna.

Ezarrিতako praktika-denboraldian aipatutako txostena egin ez bada, praktikak gáindituztat ematen direla ulertuko da. Txosten hori ebaluazio-batzorde batek aztertuko du eta, jarraian, fase hori gáinditu duten praktiketako funtzionarioak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egingo du.

Batzorde hori hautaketako organoa osatzen duten bost kidek eta hautaketa prozesu horretako epaimahaiko idazkariak osatuko dute, Batzordeko idazkari lanetan jardungo duena.

Praktikak egin bitartean, ebaluazio-prozedura jarraikoa izango da, eta ebaluazio-batzordea arduratuko da praktiketako funtzionarioen jardueren jarraipena eta txostena egiteaz. Izangaiei argitasunez jakinaraziko zaizkie ebaluatzaileen izenak.

Ebaluazioaren arduradunek abstentzioari eta kontra-egiteari buruzko araubideari dagokionez 30/92 Legearen 28. eta 29. artikuluetan zehaztutakoari heldu beharko diote.

Praktiken ardura izango duen organoak emandako kalifikazioak lotesleak izango dira Udalarentzat; hala ere, azken horrek kalifikazioak administrazio-prozedura erkidea arautzen duen araudian ezarrিতako moduan berrikusteko aukera izango du.

Praktiketako funtzionarioen batek aipatutako fasea gáinditzen ez badu, karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko ditu.

4.- Behin betiko izendapena:

Izangaiei behin betiko kalifikazioa eta lehentasun-ordena, ikastaroan lortutako puntuazioaren eta oposizio fasean lortutakoaren arteko baturaren

araberakoa izango da; hala ere, behin betiko onespena lortzeko ezinbesteko baldintza izango da praktketan gaitasun-ziurtagiria eskuratzea.

Izendapenak interesdunei jakinaraziko zaizkie eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Erandioko udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

5.- Kargua hartzea:

Udaleko organo eskudunak proposamena onartu ondoren, izendatutako izangaiek kargua hartu eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan eskatutako baldintza bete beharko dute, izendapenaren berri eman eta biharamunean kontatzen hasita hurrengo hogeita hamar egunetan.

Justifikatutako arrazoirik gabe, interesdunak adierazitako epean edo moduan kargua hartzen ez badu, hari uko egin diola ulertuko du Udalak, eta kasu horretan, bederatzigarren oinarriko laugarren atalean xedatutakoa aplikatuko da, hau da, izendapen osagarria, karguari uko egitearen ondorioz, deialdiko plaza kopuruan tokirik izango luketenen aldeko izendapen proposamena eginez, bakoitzak lortutako puntuazio hurrenkeraren arabera.

Kargua hartzeko egunean bertan hartuko du alkateak lanpostu hutsetako behin betiko adskripzioaren inguruko erabakia. Adskripzio hori hautaketa-prozesuko behin betiko sailkapen-ordena kontuan izanda egingo da, hautatutako pertsonak adierazitako nahien arabera, lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak betetzen badituzte, betiere.

Deialdiko plaza hutsak betetzeko, barne-sustapenaren bidez sartutako funtzionarioek lehentasuna izango dute beti beste bide batetik sartutako izangaiei dagokienez.

Adierazitako epean, justifikatutako arrazoirik gabe, kargua hartzen ez dutenak kargua utzitako egoeran geratuko dira; karguari uko egin diotela ulertuko da, eta eskubide guztiak galduko dituzte. Horrelakoetan, bederatzigarren oinarriko laugarren atalean xedatutakoa aplikatuko da, hau da, izendapen osagarria, eta deitutako plaza kopuruan, uko egitearen ondorioz, tokirik izango luketenen aldeko izendapen proposamenak egingo dira, bakoitzak lortutako puntuazio hurrenkeraren arabera.

HAMAIKAGARRENA.- AZKEN ARAUAK.

Deialdi honen eta bertatik nahi Kalifikazio Epaimahaien jardueratik ondorioztatutako administrazio-egintza ororen kontra egin ahal izango da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruz indarrean dagoen Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Oinarrietan zehaztu ez denerako, hurrengo legeak hartuko dira kontuan: Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legea, apirilaren 12koa; toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa; Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea, uztailaren 6koa; Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurari eta oinarrizko araei buruzko Legegintzazko 896/1997 errege Dekretua, ekainaren 7koa; Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Prozesua onetsi zuen 86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa, eta osagarri gisa, Estatuko Administrazio Nagusiko funtzionario zibilen lanpostuak bete eta funtzionarioak lanean sustatzeko Araudi Orokora onetsi zuen 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10koa; eta aplikatu daitekeen xedapen oro.